

Nekazariaren etxea: zabala basetxea edo izurtza jauregia

KONTZEPTUA

Basetxea, gaztelerazko “caserio” edo, XVIII. menderarte gehiago erabili izan den “caseria” deitzekoa, euskal baserritarra, denboraldien beharrianetara eta Euskal Herriko ekosistematarra moldatuz, ingurua kolonizatuz joateko zelula da.

Euskal gizaldea, Europan bizi diren askoren artekoa da, basetxea, artzain eta nekazaria izatearen beharrianetarako erantzuna dela, beharrianok, alderdi askotan, beste etnietakoen parekoak izanik. Hala ere, nabariak dira nekazarien etxeen arteko desberdintasunak, hauek, baldintzapen klimatiko, ekonomiko eta gainerakoen gainetik, kultur-emaitez direlako.

Hori dela eta, nekazariaren etxea, herrien kultur-nortasunaren adierazbide garrantzizkoen arteko bat bezala kontsideratzeko (eta mitifikatzeko) joera izan da beti, mintzaera eta tradizio eta legenden maila berean.



Baserria euskal nekazarien landetxea da, berezko ezaugarriak ditu eta bilakaera tipologikoa dagoenean erraz aldatzen dira. Gaztañaga Goikoa baserria, Loiun.

TIPOLOGIAK

Bizkaian dauden tipologiaren panela orokorrean ulertu ahal izateko, hurrengo hartu behar da kontutan oinarri gisa: Enkarterrietako eskualdearen basetxearen arkitektura bestelakoa da. Une batetik aurrera, bizkaitar eta enkarterriar basetxeak ditugu, banatuta. Horiek dira bi multzo tipologiko handiak baina, horrez gain, funtzioen arabera (abeltzaintza edo nekazaritza) ere aldaraziko dira, mota edo azpimota berriak sortuz. Azken bi azpimota hauek desberdinak dira, abeltzainak espazio handiagoak behar baititu abelgorri nagusia negualdian babesteko, beheko solairu osoa estabulaziorako erabiliz, bera eta bere familia bigarren solairuko aurreko aldean, sabaiarekin kontaktuan, bizi diren bitartean; izan ere, oso beharrezkoa da basetxean sabaia, egoitzarako espazioak neurri handian murrizten baititu. Esandakoaz gain, egoitzara sartzeko eskailera kanpotik doa, ez barrutik. Gorbeiaiko mendi-ingurutan eta Ganekogortako mendigunean, non, urte erdian zehar ganaduak bazkatzirela eta direla (Orozko, Zeberio, Arratia, Zollo) ugari dira basetxe mota hauek. Eta, Balmaseda bidez



Burgosera errepidean zehar zenbait puntutan (Sodupe eta Guenes aldeak, adibidez) baita ere. Kasu honetan ez dira abelgorri nagusiaren hazleen jabetzakoak, mandazaintzarako mando taldeen jabeenak baizik.

Bediako Artabene baserria. Abeltzaintza-funtzioa du eta barruan oblongo dago. Solairu noblera patin bidez sartu ahal izatea da bere ezaugarri nagusia.

Nekazariaren basetxeak gehiago orekatzen ditu espazioak, etxebizitzarako erretserbatuz etxearen aurrealde osoa, bai lehen solairuan zein bigarrenean ere. Atzealdea, beheko aldean ganadurako eta, goikoan, sabairako izango da. Uzten pilaketa ganbaran egiten ohi da, non, zenbait kasutan, txakoli edo sagardorako prentsa ere dagoela, etxeko egituraren zurarekin bateginik. Eraikin mota honetan ez dago atxikipen geografiko argirik, eskualde guztietan baitaude; hala ere, garbi

geratzen dena, zera da: kanpoko eskailerarik egon ez eta ataria eta beste osagai batzuk egoteak, azken finean, abeltzainaren etxekoaren ez bezalako motak eta azpimotak definitzen dituztela.

Basetxea, kulturaren oso produktu aintzinakoa da, erdi arokoa gutxienez, nahiz eta gaur dirautenak XV. mendearen erdialdekoak baino aintzinagokoak izan ez. Zalantzarik gabe, aintzinagokoen bilakaera dira, hauek, arkeologiaren laguntzaz

materialak eta espazioen banaketa aztertuz baino ez direla berreraikigarriak. Inoiz jakin ezin izango duguna, agian, etxe herrikoia jatorrenetarikoa izanik, basetxe haien itxura izango da.

Euskal nekazari eta abeltzainak 1520. urtez geroztik lortu zuten etxe-eredu egokia. Data horren inguruan, basetxe modernoa sortu eta eskualdeko eta tokiko tipologiak ugaritzen dira.



Dimako Bernaola-Goikoa baserria; bi helburutarako abeltzaintza da, eta zurezko bi mandio ditu.

Bediako Artabene baserriaren goiko solairuko egurrezko itxituraren xehetasuna.



Basetxe “bizkaitarra”: abeltzainaren etxea

Eredu oblongoa, itxuragatik batez ere, nekazaritzarako basetxearen oso antzekoa da. XVI eta XVII. mende bitartean kokatu behar dugu kronologian eta, sarri askotan, ataririk ez badu ere, fatxadaren erdian babesgune minimo bat du, kanpotik doan etxerako sarbidearen patineko plataformarena. Zaharretan, nekazaritzako basetxean gertatzen den bezala, zurezko osagaia, manpostu, zura edo mistoa (entramatua) den zarraketadun zurezko zutikako zutoinen egitura, oso garrantzitsua da. Zenbait basetxe oso egoera txarrean iritsi dira XXI. mendera baina, funtsezkoa denean, berreraikigarriak dira. Etxe soilaren irudia (oblongoa, bi aldetarako ixurbidearekin, altxaera gutxikoa eta zurez landua) du, erabiltzailearentzat baino ganaduaren zerbitzurakoa. Zalantzarik gabe, ezezagunak ditugun XIII edo XIV. mendeetako erdi aroko basetxeen antzekoak dira nolabait.

Adibideak: Gorbeiako mendigunearen aldeetakoak: Ellakua (Gallarte-Zeanuri), Errandoena (Ipiñaburu-Zeanuri), Ugarka (Astarria-Zeanuri), Errandona (Ibarra-Zeberio), Amezola (Zeberiogana-Zeberio).

Eredu kubikoa. XVII. mendearen amaieratik eta oso argi jadanik XVIII. ean eta geroago XIX. ean, espezializazio handiagoaren eta abelburuen kopurua gehitzearen ondorioz agian, abeltzainaren etxearen tamainua gehitu eta beste tipologia ematen du. Antzemateko lehena, aldamenetarantz ixurbidedun ur bitarako silueta, bolumen kubikoa bihurtu dela da, lau uretarako

teilatuekin.

Adibideak: Etxezabale (Uztara-Zollo), Aldana (Aspiunza-Zollo), Zollourruti (Urruti-Zollo), Barrenengoa (Aspiunza-Zollo), Txantxiko (Elexondo-Arrankudiaga).



Kubiko motako abeltzaintzako baserria, zurezko mandioarekin. Zolloko Zollourruti baserria.

“Bizkaitar” basetxea: nekazariaren etxea

Ataririk gabeko basetxea, XV. mendekoa eta, mende batzuetako tartean geroztik, XIX.aren hasierakoa dugu. Lehena bakarrik interesatzen zaigu, atariduna den tipologia zehatz berezkoagoa izan arte, nekazariaren etxean esperimentu baten gisakoa ulertu behar duguna.

XV. mendeko ataririk gabeko basetxea, funtsean hermetikoa da, pertsonentzat eta abereentzat sarbide puntadunak, gotikoak, normalean aurrealdean eta atzealdean irekiak dituela. Taxuketa hormagintzakoa izaten ohi da baina, zenbait kasutan, kalitate handiagoko harlanduska edo apalagoa den zura eta harrizko entramatua zein burniolako hondakinekoa erabiltzen da. Urteak igaro ahala, zarraketarako erabilitako zura garrantzitsua izaten hasten da.

Dobelazko sarbide gotiko apuntatutun ataririk gabeko basetxeak, Bizkaia ia osoan hedatzen dira, Enkarterrien eskualdea barne: Kortabitarte (Aulestia), Endeisa Aurrekoa (Basetxas-Ereño), Zelakoa (Mendiola-Abadiño), Zabala Goikoa (Ergoien-Amorebieta-Etxano), Amonigoiti (Amino-Mallabia), Ezkitxe-Behekoa eta Ezkitxe Erdikoa (Goiherri-Ispaster), Goaskoa (Kortazar-

Ispaster), Larriña Behekoa (Larrinaga-Ispaster), Andikoetxea Etxeandia (Gametxo-Ibarrangelu).

Atari arkitrabatutun basetxea. Talde handi honetakoak dira XVI eta XVII. mendeetan zehar eraikitako basetxeak. Ataria, kultur fase gotikoaren amaieran eta, kronologikoki, XVI. mendearen barruan sortzen da. XVI. mendearen lehen urteetan, ataria ataburuduna da baina, geroago, arkudun ataria sortuko da, XVIII. mendean gehien indarrean egongo dena. Hasieran, ataria, fatxada



Kortezubiko Zierre baserriak XVII. mendean ohikoena izan zen erdi-erdian dagoen dinteldun ataria du.

Ataria zurezko zutabe batekin sendotzen da.

Aulestiko Kortabitarte baserria, berrituta dagoen arren, gotikoa da eta ataria ez egotea da ezaugarri nagusia.

modulatzen duten zutikako lau zutoinen arteko bik baldintzatuko dute. Hauen artean, aldeetara simetrikoki eratzen diren gelek egindako aldameneko espazio angeluzuzena egiten da, horretara, fatxada hiru kaletan, bi trinkoak eta erdiko porotsuago batean banatuz. Aldamenetako gela eta ikuilura ataritik bertatik sartzen da. Ataburua definitzen haga horizontal bat eta zangotan zutikako bi zutoin edo ordezeko hormak egoten ohi dira.

Eraikin hauek, estilo normalizatuaren erritmoekin, akonpostzen laguntzen duten eraikitzekeo zein apaintzeko osagaiak, aldamenetako hormatalen paramento trinkoetan egoten ohi dira. Ia beti, bao bikoitz, apuntatuak edo konopialak izaten ohi dira. Erdiko kaleak, zenbait kasutan, atariaren haga-ataburuaren gaineko pisua arintzen du, zarraketa bezala gaztainondo edo haritzaren zura aplikatuz; izan ere, material hau, apaindurazko osagaiak lantzeko egokia izateaz gain, ganbaran lehortzen diren landako produktuentzat osasuntsua da.

Ataburudun atariko eta, batzuetan, erdiko kalearen zarraketan zurezko osagai garrantzizko XVI. mendeko basetxeen adibideak, hauek dira: Hormaetxe (Meabe-Xemein),

Menditorre (Ispaster), Rekalde Auzoko 3. zenbakiko etxea, Rekaldeko orubea (Guenes), Laguanaz (Turtzioz), Landetxo Goikoa (Mungia), Ametza (Larrabetzu), Gatika (Zaldibar).

Atariarkitrabatuaren basetxeen tipologia honek, XVI. mendean amaituz gero, XVII. ean zehar eraikitzen da baina, garai hartan, bai egituraren zein zarraketaren zuragatiko interesa galtzen da, gehien bat, zamako hormak eta harrizko edo adrailu konpaktuzko zarraketak erabiltzen baitira. Gainerakoan, atariak, duen siluetak eta bolumen oblongoak ez dituzte aldarazpen gehiegirik.

Atari arkitrabatuko XVII. mendearen basetxeen adibideak, hauek dira: Aldekoa (Lekerika-Nabarniz), Berrizbeitia (Berriz), Irtzagorriako 7 zkdun. basetxea (Gordexola), Palacio eta Aurtenetxe (Bitaño-Izurtza), Intxaurrendi (Uharka-Arratzu), Ozollo (Ozollo-Arteaga), Zierre (Oma-Kortezubi), Isuntza Goikoa (Berriz), Gaztelugoitia (Gaztelu-Abadiño).

Arkudun atariko basetxeak ere XVI. mendean du sorrera. Jakin ez dakizkigun baina bitartekoen ekonomiaren aldekoak izan litezken arrazoiengatik, ez zuen nekazariak asko erabili, gutxitan formulatzen

baitu. Egiten duenean oso era duinean da, ataria, harlanduzko fatxada noble bati elkartuz. Adibide katalogatuak, gutxi izanik, estimagarriak dira: Lekoia Behekoa (Berriatua), Garatikue (Garai), Zengotita Bengoa (Zengotita-Mallabia).

XVII, XVIII eta XIX. mendeko arkuan edo arkutan diren basetxeak aski bereizten



Mugiako Landetxo-Goikoa baserria. Gotikoa da, bi harrizko gorputz ditu, eta alboetan portale dinteldu handi bat, eta gainean zurez egindako itxitura-egitura du eskoratuta.

Mungiako Landetxo-Goikoa baserriaren zurezko itxituraren xehetasuna.

dira XVI. mendekotik. Aipagarriena, tamainu handiagoa da, etxegintzan harria baino ez baita erabiltzen. Harrizko ataria osagai fidagarria da eta beraren gainean hasten dira arkitektoak hiru altuerako fatxadak proposatzen. Kultura barrokoaren aldeko arkudun hau da, zalantzarik gabe, euskal basetxe motarik topikoena, erromantizismoak zabaldu eta ehun bat urte direla neobaskoko arkitekto erregionalistek antzeratu nahi zutena.

Oso ugariak dira eta Bizkaia osotik sakabanatuta daude, hedapen historikoan ulerturiko Enkarterrien eskualdean ezik. XVII. mendearen amaierako eta XVIII. mendeko arku bakar bateko basetxeen adibide gisa hurrengoak aipa daitezke: Ormetxe (Aldebarrena-Mañaria), Uriarte (Arroeta-Mañaria), Zabaleko (Iguría-Elorrio), Espilla Aundi (Malax-Aulestia), Leixardi (Lariz-Gizaburuaga).

Bi arkudunak ere, eraikin handiak izanik, ugariak dira: Bisko (Odiaga-Amoroto), Aurtenetxe (Ibarruri-Muxika), Idarreta (Urrutia-Amoroto), Olaortua (Mendraka-Elorrio), Arrate (Berrio-Elorrio), Otxaita (Eitua-Berriz), Otxuende (Dudeagoitia-Amorebieta-Etxano), Dorransolo (Axpe-Atxondo), Aresti (Gaztelua-Abadiño).

1830 edo 1840rarte gutxienez, arkudun atariak indarrean dirau nekazariaren etxeko arkitekturan. XVIII. mendearen amaieratik, baeen itxura bakarrik aldatu da, orain, neurri handiko harlandu batzuen bidez laukitzen baitira. Halaber, beren aparailua, XVIII. mendekoa baino landuagoa izaten ohi da. Eraikin hauek, diseinu hotzekoak, oso txukunak eta esmeratuak izanik, neurri handikoak dira.



Mañariko Ormaetxe baserriko atari handiaren (arkuarekin sartzen da) xehetasuna. Ataria obra elaboratua izan ohi da.



XVIII. mendean harrizko baserria orokortu zen, arkudun portalearekin. Mañariko Ormaetxe baserria. Itxura handikoak izan ohi dira eta euskal baserrien artean topikoena da.

Diodanaren zenbait adibide dira Beñas eta Zeleta basetxeak (Murgoitio-Berriz), Bediagas (Bediaga-Amorebieta-Etxano), Trasola (Orobio-lurreta), Arrieta (Miota-Elorrio), Arroita (Garai), Dudoleta (Orobio-Amorebieta-Etxano).

Mendearen erdialdetik aurrera, arkuak ataburu bilakatzen dira; honez gain zabalera eta sakonera galdu eta, azken finean, etxeetarako sarbide hutsak bihurtzen dira. Horretara, bada, berariazko euskal basetxea uler daitekenaz, nekazaritzarako euskal basetxeaz eraikin moldagaitzak bihurtzen dira. Arianza (Igurria-Elorrio), Ermitabarri-Zeberioko Presa, Ibaibide (Arriandi-lurreta), Unibaso (Unibaso-Orozko), Ostekone (Gerrikaitz), Landaluze (Foru), Ajeos (Gorliz) basetxeak, nortasun galtze horretako adibide gisa aipa litezke.



Dorronsolo baserriko arkuko atari bikoitzaren xehetasuna.



Batzuetan arkuko ataria bikoitza da. Arrazolako Dorronsolo baserria, Atxondon (1763).

Enkarterrietako basetxea

XVI. mendetik bertatik, bizkaitar basetxe arkitrabatuarekin batera, Enkarterrietako berezko beste mota bat hasten da somatzen, tipologiako oso profil zehatzak izanik, etxaurrean espoloi edo pipiaño batzuetatik eskegitako korredoreengatik dena, funtsean, desberdina. Hala ere, mota hau XVIII. mendean garatuko da gehien. Eskualdean, hau ere berezkoa den beste basetxe-mota, kubikoa, ugaria da jadanik XVII. mendean.

Korredoredun basetxea.

Nortasun gehienekoa da. Egokitasunez deitu izan da, baita ere, montañes, lurralde huraren ekialdeko arkitektura herrikoiarekin dituen zerikusi argiengatik. Mendebaldeko Enkarterrietan da ugarien. Ia tokikoak diren proposamenetarako oso sentikor, Aguera, Karrantza eta Kalerako haranek berezko berezitasunak dituzte.

Ezaugarri orokorra eraikin oblongoak izatea da, sakontasun handikoak, beren gainean maila batera edo bitara zura torneatuzko korredoreak eratzen diren harrizko bi espoloi

artean enmarkaturiko etxaurrearekin. Korredoreok, azken finean, atari luze babestua eratzen dute.

Korredoredun basetxerik antzinakoetariko bat, XVI. mendekoa, Lanestosa hirian dago, Mirabueno kalean lerrokatua. Ez da herri bereko beste batzuetatik oso desberdina, berandukoagoak badira ere. Oso bertsio herrikoi batekoa da, zurezko bere egiturarekin. Dotoreagoak dira,

taxuketa duinagoekin eta XVII eta XIX. mende bitartean datagarriak Luperena eta Larena basetxeak (Gordon-Turtzioz), Casa Mía (El Peso-Artzentales), La Cruz (Gargolas-Artzentales), 7 zkdun. etxea (Romana-Turtzioz), Cerro etxea eta lerroango etxeak (Cueto-Turtzioz), El Pital etxea (Aldeacueva-Karrantza), Conde de Limpías etxea (San Esteban-Karrantza).



Artzentalesen gainjarritako korredoreak dituzten bi landetxe. Eragin menditarra duen landetxearekin bat datoz.

Basetxegintza

Euskal nekazaria hobeto ezaugarritzen duten alderdien arteko bi, laguntzarik behar ez izatea eta autonomia dira. Ia dena, ogia egiteko bihiaren ehoketa eta abereentzako pentsua ezik, beronek egin dezake basetxetik irten gabe. Eraikintza, ezta ere, ezin du atenditu, horretarako industriako materialak beharko baitlituzke. Honez gain, armatzeko zurgintzaren teknikak ez ditu menperatzen, ezta hargintzarenak ere. Hori dela eta, erdi aroko txabolena baino egokiagoa nahi duen etxea eraikitzeari ekiteko beharrezkoa du espezialistengana, hargin eta zurginengana alegia, jotzea. Hauek dira, eraikintzaren sekretuak jakiteaz gain, marrazkia, diseinua, taxuketa eta notario baten aurrean komitenteak eta kontratugileak sinatzen dituzten obraren baldintzak nolabait menperatzen dituztenak.

Aurreko lerrokadan adieraziaren helburua, basetxea, estilo eta adinik gabe, erabiltzaileak berak bere kabuz ebazten dueneko oso ideia hedatua desmitifikatzea da. Ez da horrela izan, zeren eta, aitzitik, basetxea eraikitzean beti baitago diseinuren bat, oinarrizkoa bada ere, marraztu eta sustatzailearekin zenbait baldintza idatziz hitzartu

dituen maisu bat. Oin eta altxaeraren diseinuekin, trazak aintzinako dokumentazioan, batera beti egoten ohi dira akotazioak eta eskalak (pitipie) bezalako erreferentziak, zeintzuk, gaztelar oinetan emanaz, gaur egun ere edozein arkitekto erabil ditzakela. Zenbait kasutan, baita, basetxegile hargin horien izenak ere badakizkigu, jauregiak, elizak, zubiak, udaletxeak e.a. bezalako obra garrantzizko eta kultoagoen egile berberak direnak.

Landaluzeko baserri neoklasikoko ukuilua, Foruan.



Bediako Artabene baserriko sukalde zaharra.

FUNTZIOAK

Basetxea, lehenengo eta behin, zelula ekonomiko bat da, abeltzain edo nekazariak eskatuko dizkion zerbitzu guztiak bermatzeko gai den etxea.

Gorago esan den bezala, abeltzainak ikuilu handi bat beharko du neguan ganadua babesteko, eta baita aipatu urtearoan elikatzekeo belarra pilatzeko sabai zabala ere. Abeltzaintzako basetxearen beheko solairu osoa ikuilua da; ataririk ere ez dago espazioa gehitzeko eta familiaren bizilekua, ordea, murriztu egiten da goiko solairuko aurrealdera, norako sabidea kanpoko eskailera bat izanik. Abeltzaintzako basetxeetan, espazioen funtzioa definitzen duena.

Nekazariak, bere aldetik, zenbait abere baditu ere, ez du ganaduarentzat horrenbesteko espaziorik behar. Hori dela eta, etxearen funtzioak beste era batera banatzen ditu, beheko solairua bi aldetan banatuz: aurrealde osoa familiarako da, ataria izanik premiazko biltoki egokia, gurdiaren babestokia, auzokoen arteko elkargunea eta, kasua izanik, noizean behingo tailerra. Abere xeheak (ahuntzak, ardiak eta txerriak) aldameneko edo atzealdeko ate batetik sartzen dira etxera baina, nekazariaren

etxean inoiz falta ez diren haien arteko preziatuenak, tiratzeko idi edo behien bikoteak alegia, aparteko tratua dute, hurbilagoa, sukaldearen atzealdean lotzen ohi dira, familiarekin ia kontaktu zuzenean. Nekazal-abeltzaintzako basetxe hauetan, goiko solairuaren zati

bat, aurrealdea, bizitzarako erabiltzen da, ganbara uztak (garia, artoa), baratzeko produktuak eta baita abereak hiltzearen ondoriozkoak ere pilatzeko erabiltzen den bitartean. Gainerakoa, ganadu estabulaturako belartegia da.



XVIII. mendeko baserria, askotan, egurrezko eta adreiluzko armazoia duen obra da, aberatsa baino ederragoa. Kortezubiko Zierre baserria.

ZABALA BASETXEA EDO IZURTZA JAUREGIAREN ADIBIDEA

Oina

Lursail okertuaren gainean oinarritua, aurretiazko lauketa behar izan du,

aurrealdean nahiko aske dagoen espazio lau aski hedatua eratu duena. Eguerdi-Mendebaldera begira dago, atzealdea, larraren gaineko goibehe nahiko handian. Eraikina, handia eta zabala, zenbaki borobiletan 17,50 x 22 m-ko perimetrozko hormekin definitzen

da, honetara, alde txikia etxaurrean eta etxeatzean eta alde handia aldamenekoetan dituen laukizuzena osatuz. Ura aldamenetarantz isurtzen duten bi aldetara gutxi etzaniko teilatuaz estaltzen da.



XVII. mendeko atari dintelduko baserrien barruan, Izurtzako Palacio edo Zabala baserriak egurrezko armazoia adreiluzko plaka baten atzean ezkututzen du. Ataria zutabe batekin sendotzen da.

Taxuketa

Taxuketa, lurraldearen arkitektura herrikoia ren zati garrantzizko baten ohiko barietatea da: teilaturainoko hormarria etxe-atze eta aldamenetan, aurrealdeko beheko mailaz aparte, eta zura eta adrailu konpaktuaren entramatua huraren goiko aldean. Gainera, harlandua dago kantoneretan eta bigarren mailako zenbait baoren definizioan.

Esandako guztian, nortasun gehien duena entramatua da: fatxadaren erdialdean simetriako ardatzdun bost habe ditu, aurreko hormatal horretako egituraren sareaz egina, lodiera txikiagoko habe horizontalen bost mailez osatua; esandakoez gain teilatuko maldak berreginek, zehaztasunez parkideak ez badira ere, bi habe pare, oso luzeak, diagonalean daude. Garrantzi gutxiagokoa da lehioak definitzen dituen habeteria, dena tokiko haritzondo egina.

Zurezko egitura honetan aske dauden espazioak adrailugorri trinkoez betetzen dira, osagai egosien antzeko lodierako karezko morteroaren oinarriarekin. Guzti honetan interesgarriena ez da, hala ere, deskribatua, egituraren zura egitan birtuala izatea baizik, entramatuarenak

bezalako adrailuez ezkutaturik agertzen baita, hauek, untzatuak baino habeetara eutsita daudela buru errektangularreko untzekin. Hau, emaitza estetiko handiko toki-teknika izanik, estimagarriagoa egiten du Zabala basetxea.

Espazioen banaketa

Zabala basetxea, atari arkitrabatu motako nekazaritzako etxe bat da. Fatxadaren erdialdean atari bat dago, zabalerako 7,50 m. eta sakonerako 4,75 m-koa. Harlosatuta dago, beronetik hurbilen dagoen aurrealde osoa bezala. Ataria, deskribatzen diren habe horizontalen arteko batek definitua da, 2,60 m-ko harrizko zutabe batean toskaniar ordena, aski entasisarekin, ipinia duena. Atartearen sabaia zurezkoa da, zeren eraikinaren zoruak, zurezko habexkekin indartzen diren egurrezkoak baitira. Ataria zentratua egonda eta basetxea zorrotzean simetrikoa izanik, atariaren zutabeak eta bere gainean zamatzen den zutoinak markatzen dute eraikinaren ardatza.

Atari zabala da basetxearen espazioak eta funtzioak antolatzen dituen. Bertatik ikuiluetara zuzenean joaten da, erdialdea okupatu eta egun kanporantz hormatua den eskailera baten aldamenetara irekita dauden

bi ate simetriko zabaletatik. Eskailera zurezkoa da, tarte zuzen bakar batekoa, nondik, aurrealdean bizitza eta, atzealde guztiz zabalagoan, ganbara eta sabaia dituen bigarren solairura joaten dela.

Ataritik, baita, beste bi gelatara ere joaten da: ezkeraldera, sukaldea, nekazaritzako etxe batean funtsezko gelara eta, eskuinera, beharriaren arabera lanabes eta pentzuen biltoki, tailer, bihitegi e.a. funtzioko beste



Izurtzako Zabala orubearen armarrria.

espazio simetriko batera.

Gelak direla eta, bigarren solairuan lau logela daude jarraian, kanporako dituzten leiho soilak simetrikoak, ataburudunak izanik, adrailu deskribatuek entxapaturiko zurez definituak. Haien gainean, ganbararen aurrealdeko espazio huts handia dago, etxeerabilerarik gabekoa, ataburudun bi leiho txiki eta bigarren mailako beste baoekin aireztatua; osagai hauek ere, bitxiak izanik, nortasuna ematen diete entramatudun basetxe hauei: era honetara eraturiko hiru adrailu bakarrez osaturiko hirukia bezain txikiak dira. Ganbara aireztaturik mantentzeko arnasbideak dira, nahiz eta goragoko aldekoak usotegirako izan, azpian, usoak geratzeko adrailuzko erlaitz txikia dutelako.

Egiturezko funtzionamendua

Ikuluan sartuz gero ondo ulertzen da eraikinaren egiturezko funtzionamendua, alde batetik hormarri sendoetan eta, beste aldetik, haritzezko bi eskumako zutoin fidagarrietan oinarritzen dena. Bi zutoin hauek harrizko poialetan oinarritzen dira; izan ere, neurri oso aholkugarri hau hartu gabe, hezetasunak eta ganaduaren pixek laster batean ustelduko baitlukete

zura, baldin eta hau zoruan zuzenean oinarrituko balitz.

Hormak eta oinak zuzen eusten dituen teilatuaren egitura da, pareak eta kontrapareak betidaniko sistemaren arabera dena: habe lodien sare bat, fatxadaren planoarekiko batzuk paraleloak eta beste batzuk perpendikularrak -hauek lodiagoak direla, zeintzuen gainean, teilak oinarritzen diren egurrak eratuz.

Tipologia

Zabala basetxearen tipologia, XVI. mendearen azken herenetik erabat kodetuta dago Durangaldeko eta beste eskualdetako nekazarien etxearen arkitekturan. Abadiño, Berriz, Garai, Mañaria, Atxondo, Arratzu, Lezama, Zeberio eta abarretan, etxaurrearen goikaldea zura eta adrailuzko entramaturako erretserbatzen duten antzeko basetxeak daude. Famili zabal honetako adal-zurtzako Zabalabasetxea, nahiz eta hau, hagak, untzez eutsitako adrailuekin ezkutatzea proposatzen duen katalogo labur batean sartu daiteken. Honetara, Andikoa-Berrizeko Etxenagusia, Gaztelua-Abadiñoeko Gaztelugoitia, Arauneta-Elorrioko Iperrare, Berrueta-Mañariako Iturriza eta gorago aipatu diren udalerrietako

beste batzuk lehen famili zabalagokoak badira, Olakueta-Berrizeko Berrizbeitia, Insuntsa-Berrizeko Isuntza-Goikoa, Abadiñoeko Burgineta eta Xatena (berreraikia) eta Garaiko Duña, besteak beste, murriztuagoan sartu beharko liriateke.

Serie-burua eta azpitalde honetako kultoena den Berrizbeitiakoa, leihoen arteko batean dagoen inskripzio batek datatzen du. Hori da dataziorako balizko eren arteko bat, oso zehatza gainera, zeren dataz gain -1572-, senar-emazte sustatzaileen izena ere ematen baitu.

Datazioa

Hau bezalakoa den oinarri formal kulturik ezer ez edo gutxi izatearen kasuan, aholkatzen den metodoa konparatzekoa da: aztertzen den eraikina, dataturik dauden antzeko eta inguruko beste batzuekin konparatzean datzana, horretara ondorioak ateratzeko. Beste aukera den agirien bidezkoa lortzeko beti saiatu behar da, zeren eta, nolabaiteko sarritasunez arkitektura herrikoa ere dokumentagarria baita.

Azken hau dugu Bitaña-Izurtzako basetxearena, garrantzizkoa eta beharrezkoa ez bada ere, agiri

orientagarri bati esker agian datatu baitaiteke. Durangar abokatua Martin Ibañez de Zabala jauna lizentziatuak eta Pedro de Axcoeta Garaiko harginak 1620an sinatu zuten kontratu partzial baten protokoloari buruzkoa da. Hargina, Izurtzako Bitaño de Suso edo Goikoa bere basetxean zabalerako bi oineko -64 cm.- hormarriaren 40 estado altxatzeko konprometitzen zen; basetxe hau, agian, hemen aztertzen dena da, datu, aipamen eta tradizio guztiak bat baitatoz (A.H.P. Bizkaia; Martin Saenz de Arriagaren Notaritzako Erregistroak, 64 leg. d/g, 1620-VIII-31). Balizkoa da, baita ere, agiria, zerbait gorago kokatzen den Goxeaskoa (egun Goienengoa) basetxeari buruzkoa izatea. Basetxe biak izan ziren Zabala familiaren jabegokoak, honek arazoa argitzeko asko laguntzen ez badu ere.

Agiriak ez du ezer gehiago azaltzen, harginak jarraitu beharreko trazak bezalako gai garrantzizkoek ez baitu aipamenik egiten. Honetaz gehigarria den bakarra, agian, Pedro de Axcoeta hargina ezezaguna ez dela da, eskualdearen eremuan eta XVII. mendearen lehen laurdenean, aipatu behar izanik gabeko zenbait agiritan agertzen baita.

Balorazioa

Testu honek gailentzen duen Jauregiko tipologia garbiari, emaitzaren amaierako edertasuna eta baita balizko datazioak suposatzen duen abantaila ere gehitu behar zaizkio. Horretara, bada, balorazio handia ondorioztatzen da. Nekazaritzarako basetxea, ikuiluen eta belar idorra pilatzeko ganbararen zabaltasunagatik, abeltzaintzako jarduerarako ere nolabaiteko gaitasuneko dugu. Bruno Mauricio de Zabala jauna datorren maiorazkoarena izatearen balio historikoa nahikoa ez balitz, landalur ondarearen osagai gailena denaren aldetik babestea merezi baitu. Jose Domingo de Ampuero jauna bere jabeak, txukuntasunez zaharberritu berria da, antza denez, bizi izateko birmoldatuz.



Armazoiaren zura ezkutatzen duten adreilu-plaken xehetasuna.

Zabala familiakoak

Zabala familiakoak, lurraldean ezagunak dira. Euron arteko ospetsuena, Bruno Mauricio de Zabala (1682-1736) aipatua da, Buenos Aireseko gobernadorea eta Montevideo hiriaren sortzailea. Bruno Mauricio, antza denez, basetxea eraikitzea agindu zuen Martin de Zabala jaunaren iloba zen, Zabalaren maiorazkoa jabetza horretan oinarritzen dela izanik tradizioa. Durangon bizi izan zen familia Sanagustinalden, Augustindarren aintzinako komentuaren ondoko jauregian. Han, Montevideo hiriaren sortzailea gogorarazten duten plaka batzuk badaude ere, beste egoitza ere izan zuten Santa Ana plazan. Menderik mende errentamenduan ustiatua, basetxea beti izan da Zabala familiaren jabegokoa, sortzailearen abizena, Ampuero familiakoak diren eguneko oinordekoen zerrendan jadanik galdu bada ere. Hau bezalako kasu gutxi izango omen dira: XXI. mendeko Ampuero familiakoak, XVII. mendearen hasieran Bitaña-Izurtzan bere basetxe Jauregia eraikitzen zuen Martin de Zabala jaunaren oinordeko linealak dira.



Izurtzako Palacio o Zabala baserriko ganbaran hainbat triangelu ("palomar" erakoak). Adreiluak eusteko iltzeak ikusten dira.